a) Confeccionar un mapa mediante la recopilación de la normativa, traducción y certificación de vigencia actualizable;

b) establecer protocolos de actuación que permitan un sistema ágil de utilización para todos los operadores jurídicos;

c) examinar la repercusión en el país de origen de la resolución judicial de nuestros Órganos Judiciales.

Partiendo de la inquietud que nos habéis transmitido un importante número de compañeros, queremos solicitar la colaboración de todos vosotros, a cuyo efecto hemos preparado una pequeña encuesta que acompañamos y solicitamos nos la hagáis llegar con vuestras ideas y sugerencias.

Agradeciendo de antemano vuestra colaboración, que esperemos nos permita alcanzar en un breve espacio de tiempo los frutos perseguidos, y quedando a vuestra disposición para cualquier aclaración que pudierais precisar, recibid un cordial saludo de todos los miembros de la CRI.

[1] Cobra especial transcendencia en el proyecto de reforma LEC aprobado en el Senado el 23 de febrero de 2011 (BOCG 03/03/2011)

## CUESTIONARIO

Al objeto de confeccionar un mapa legislativo de normativa aplicable en nuestro País, con su traducción, contenido y certificación de vigencia, pedimos vuestra colaboración completando el siguiente cuestionario que **en breve recibiréis por email a través de una CIRCULAR que podréis devolver contestada.**

## *GALDERA-SORTA*

*Gure herrialdean aplikatzeko moduko araudiaren legegintza mapa bat egiteko, itzulpenarekin, edukiarekin eta indarraldiaren ziurtagiriarekin, zuen lankidetza eskatu genuen, galde-sorta hau osatzea eskatuz.* **Galde-sorta laster posta elektronikoz jasoko duzue, erantzunda itzul dezakezuen ZIRKULAR baten bidez.**

| | SI / BAI | NO / EZ |
|---|---|---|
| Has precisado alegar legislación extranjera en algún proceso seguido ante los Juzgados o Tribunales de Bizkaia?<br>*Bizkaiko epaitegietan edo auzitegietan atzerriko legeria alegatu behar izan duzu?* | | |
| Has aportado tú la normativa?<br>*Araudia zuk gehitu duzu?* | | |
| Has aportado tú la traducción?<br>*Itzulpena zuk gehitu duzu?* | | |
| Abonó tu cliente la traducción?<br>*Zure bezeroak itzulpena ordaindu zuen?* | | |
| Se realizó acogiéndose a los beneficios de la Asistencia Jurídica Gratuita?<br>*Doako Laguntza Juridikoaren onurak erabili ziren?* | | |
| Se trataba de legislación relativa al Derecho de Familia?<br>*Familia Zuzenbideari buruzko legeria zen?* | | |

**Indica, por favor / *Adierazi, mesedez***

De qué país fue la normativa
*Zer herrialdetakoa izan zen araudia?*

Quién realizó la traducción
*Nork egin zuen itzulpena?*

De qué rama del Derecho (familia, obligaciones y contratos, mercantil, penal, laboral, etc.)
*Zuzenbidearen zein adarretakoa zen (familia, betebeharrak eta kontratuak, merkataritza, zigor arloa, lan arloa, etab.)*

Sugerencias
*Iradokizunak*

**Fdo.**
***Sin.***

**Colegiado**
***Elkargokidea***

# *ATZERRIKO ZUZENBIDEA APLIKATZEA*

*Atzerriko zuzenbidea aplikatzean zenbait zailtasun ager daitezke. Atzerriko zuzenbidea zuzenbide arrotza da foroan, eta horren edukia eta irismena zehaztu egin behar dira; gainera, horren interpretazioak eta aplikazioak arazoak planteatzen ditu, foroko zuzenbideak ez bezala.*

## *1) ATZERRIKO ZUZENBIDEAREN EDUKIA ETA IRISMENA ZEHAZTEA.*

*Foroko gatazka-arauak, foroko zuzenbidearen atal moduan, ofizioz aplikatzen dira, eta horiei dagokienez iura novit curia printzipioa da nagusi. Orientazio horren arabera, Kode Zibilaren 12.6 artikuluaren arabera, «Auzitegi eta agintariek ofizioz aplikatuko dituzte Espainiako zuzenbidearen gatazka-arauak».*

*Gatazka-araua ofizioz aplikatzeak esan nahi du epaileak gatazka-araura bildutako legea aplikatu beharko duela. Legea foroaren legea bada, epaileak ezagutzen du eta ofizioz aplikatzen du, aurretik aipatutako printzipioaren arabera. Baina legea atzerriko legea bada, printzipio prozesal bera erabil daiteke? Erantzuna hasieran negatiboa izango da, ez baita arrazoizkoa estatu bateko epaile eta auzitegiei eskatzea antolamendu juridiko guztiak ezagutzea. Modu horretan, aitortzen ari dira atzerriko zuzenbideak ezin duela foroko zuzenbidearen kokapen prozesal bera izan, eta horren eraginez, kasu askotan, atzerriko zuzenbidearen tratamendu prozesala eta egitateen tratamendua parekatu dira. Parekatze hori dela bide, atzerriko zuzenbidearen alegazioa eta proba eska daitezke. Hala ere, atzerriko legea egitate moduan hartzearen ondorio prozesalak ez dira onargarriak: demanda ezestea atzerriko legearen froga ez dagoelako edo froga behar den bestekoa ez delako, "onartutako egitateen" doktrina aplikatzea, epaileak egitateen aurrean kokapen pasiboa hartzea... Ondorio onartezin horiek Espainiako Auzitegi*




# APLICACIÓN DEL DERECHO EXTRANJERO

En la aplicación del Derecho extranjero, pueden suscitarse una serie de dificultades. El Derecho extranjero es un Derecho extraño en el foro cuyo contenido y alcance debe ser determinado y cuya interpretación y aplicación plantea problemas que no plantea, naturalmente, el Derecho del foro.

## 1) DETERMINACIÓN DEL CONTENIDO Y ALCANCE DEL DERECHO EXTRANJERO.

Las normas de conflicto del foro, como parte del Derecho del foro, se aplican de oficio, rige respecto a ellas el principio iura novit curia. De acuerdo con esta orientación, el artículo 12.6 del Código Civil establece que «los tribunales y autoridades aplicarán de oficio las normas de conflicto del Derecho español».

La aplicación de oficio de la norma de conflicto implica que el Juez deberá aplicar la ley a la que remite la norma de conflicto. Si la ley designada es la ley del foro, el Juez la conoce y la aplica de oficio conforme al principio antes mencionado. Pero si es designada una ley extranjera, ¿cabe hacer uso del mismo principio procesal? La respuesta será inicialmente negativa, pues no es razonable exigir a los jueces y tribunales de un Estado el conocimiento de todos los ordenamientos jurídicos. Se está así reconociendo que el Derecho extranjero no puede ocupar la misma posición procesal que el Derecho del foro, lo que ha conducido, en muchos casos, a equiparar el tratamiento procesal del Derecho extranjero al tratamiento de los hechos. Tal equiparación equivale a exigir alegación y prueba del Derecho extranjero. Sin embargo, las consecuencias procesales de la consideración de le ley extranjera como un hecho no son aceptables: desestimación de la demanda ante la falta o insuficiencia de prueba de la ley extranjera, aplicación de la doctrina de los «hechos admitidos», posición pasiva del Juez ante los hechos,... Estas consecuencias inadmisibles pueden encon-

trarse en la jurisprudencia del Tribunal Supremo español. Parece indiscutible, sin embargo, que la ley extranjera no puede ser tratada procesalmente como un hecho. El propio Tribunal supremo retrocede, en ocasiones, ante las consecuencias mencionadas: no puede desestimarse la demanda sin aplicar algún ordenamiento; debe alcanzarse un mínimo nivel de conocimiento del Derecho para poder aplicarlo. Estas contradicciones han dado lugar a un considerable grado de inseguridad jurídica.

Se ha ido evolucionando hacia un sistema de colaboración entre las partes y el Juez en la determinación del contenido y alcance del Derecho extranjero. Por una parte, la intervención de las partes se acomoda bien al papel que tiene en el proceso civil el principio dispositivo. El interés de las partes puede impulsarlas a la participación activa en la prueba del Derecho extranjero, facilitando así la tarea del Juez. Por otra, la participación del Juez parece necesaria si se quiere defender la eficacia de las normas de Derecho Internacional privado y asegurar que, cuando el Juez resuelve un litigio según un Derecho extranjero, lo hace adecuadamente.

La medida de la intervención de las partes y del Juez depende de cada sistema jurídico. Algunos ordenamientos exigen a las partes la prueba del Derecho extranjero y se admite la intervención del Juez tendente a completar la prueba de las partes. Los últimos pasos en esta evolución se orientan hacia una exigencia cada vez mayor al Juez y menor a las partes: si el Juez no conoce la ley extranjera aplicable, debe adoptar las medidas necesarias para llegar a su conocimiento, aunque las partes puedan colaborar con él para lograr este objetivo. Se pasa de imponer una obligación a las partes a imponérsela al Juez y de admitir una intervención complementaria del Juez a admitir una intervención complementaria de las partes. La intervención judicial pone de relieve que el Derecho extranjero es Derecho, es el sistema jurídico con arreglo al que se va a resolver el litigio, aunque no pueda ser tratado en el proceso en igualdad de condiciones que el Derecho del foro.

En el sistema español de Derecho Internacional privado, con anterioridad a la reforma del Título Preliminar del Código Civil de 1974, los jueces y tribunales españoles se enfrentaban al problema sin ninguna apoyatura legal. Así se explican las mencionadas contradicciones en la jurisprudencia del Tribunal Supremo, aunque domine en ella la consideración de la ley extranjera como un hecho. En 1974 se introduce en nuestro Derecho la regla del derogado párrafo segundo del artículo 12.6 del Código Civil: «La persona que invoque el Derecho extranjero deberá acreditar su contenido y vigencia por los medios de prueba admitidos en la ley española. Sin embargo, para su aplicación, el juzgador podrá valerse además de cuantos instrumentos de averiguación considere necesarios, dictando al efecto las providencias oportunas». La norma ha sido objeto de distintas interpretaciones. Conforme a una interpretación literal –que ha sido aceptada en términos generales por el Tribunal Supremo–, la ley extranjera debe ser invocada por la parte a quien interese su aplicación y esta parte deberá aportar prueba de la misma. No obstante, el Juez puede

*Goreneko jurisprudentzian aurki daitezke. Hala ere, eztabaidaezina dirudi atzerriko legea ezin dela prozesalki egitate moduan hartu. Auzitegi Gorenak batzuetan aipatutako ondorioen aurrera atzera egiten du: demanda ezin da ezetsi antolamenduren bat aplikatu gabe; zuzenbidearen gutxieneko ezagutza maila lortu behar da aplikatu ahal izateko. Kontraesan horiek direla bide, nolabaiteko segurtasunik eza juridikoa dago.*

*Alderdien eta epaileen arteko lankidetza sistemarantz bilakatuz joan da, atzerriko zuzenbidearen edukia eta irismena zehazterakoan. Batetik, alderdien esku-hartzea ondo egokitzen zaio xedatze-printzipioak prozesu zibilean duen eginkizunari. Alderdien interesa dela bide, baliteke alderdiek atzerriko zuzenbidearen frogan partehartze aktiboa izatera bultzatzea, epailearen eginkizuna erraztuz. Bestetik, epailearen parte-hartzea beharrezkoa dela dirudi nazioarteko zuzenbide pribatuaren arauen eraginkortasuna defendatu nahi bada eta epaileak atzerriko zuzenbidearen arabera auzi bat ebazten duenean behar den moduan egin duela bermatu nahi badu.*

*Alderdien eta epailearen esku-hartzearen neurria sistema juridiko bakoitzaren araberakoa da. Antolamendu batzuek atzerriko zuzenbidearen froga eskatzen diete alderdiei, eta epailearen esku-hartzea onartzen da, alderdien froga osatzeko. Bilakaera honetan, azken urratsak dira epaileari gero eta gehiago eskatzen zaiola eta alderdiei gero eta gutxiago: epaileak aplikatzeko moduko atzerriko legea ezagutzen ez badu, lege horiek ezagutzeko beharrezko neurriak hartu behar ditu, baina alderdiak berarekin lankidetzan aritu daitezke helburu hori lortzeko. Lehen betebeharra alderdiei ezartzen zitzaien eta orain epaileari ezartzen zaio, eta lehen epaileari esku-hartze osagarria eskatzen zitzaion eta orain alderdien parte-hartze osagarria onartzen da. Eskuhartze judizialak agerian uzten du atzerriko zuzenbidea dela, sistema juridiko horren arabera ebatziko dela auzia, baina prozesuan ezin dela jorratu foroko zuzenbidearen baldintza-berdintasunean.*



*Nazioarteko zuzenbide pribatuaren Espainiako sisteman, Kode Zibilaren Atariko Tituluaren 1974ko eraldaketaren aurretik, Espainiako epaileek eta auzitegiek arazoari lege-babesik gabe egiten zioten aurre. Horrela azaltzen dira Auzitegi Goreneko jurisprudentzian dauden kontraesanak, baina horretan nagusi da atzerriko legea egitate moduan hartzea. 1974an, gure zuzenbidean Kode Zibilaren 12.6 artikuluko bigarren paragrafo indargabetua sartu zen: «Atzerriko zuzenbidera jotzen duen pertsonak horren edukia eta indarraldia egiaztatu beharko ditu Espainiako legean onartutako frogabideen bitartez. Hala ere, aplikatzeko, epaileak beharrezkotzat dituen ikertze tresna guztiak erabili ahal izango ditu, eta xede horretarako beharrezko probidentzia guztiak emango ditu». Araua hainbat modutara interpretatu da. Hitzez hitzeko interpretazioaren arabera –Auzitegi Gorenak oro har onartu du–, atzerriko legea aplikatzea interesatzen zaion alderdiak ekarri behar du, eta alderdi horrek horren froga gehitu beharko du. Hala ere, epaileak esku har dezake, baina aurretik alderdiaren esku-hartzea egon de-*



*nean bakarrik, horren parte-hartzea aukerakoa eta osagarria dela jotzen baita. 12.6 artikuluaren bigarren paragrafo zaharraren hitzez hitzeko interpretazio hori eta lehen lehenengo paragrafoa zen eta orain artikulua osatzen duen paragrafo horretako araua aurrez aurre daude: gatazka-araua ofizioz aplikatzen bada, epaileak edo auzitegiak aplikatzeko moduko atzerriko zuzenbidea ezagutzeko bitartekoak izan behar ditu. Horregatik, doktrinaren atal batek paragrafo horren interpretazio sistematikoa egitea egokiagoa dela pentsatu du, arauaren hitzez hitzekotasunetik harago doana, lehenengo paragrafoaren argitan ikusita. Horren ondorioz, epaileak edo auzitegiak aplikatzeko moduko atzerriko zuzenbidearen edukia eta irismena ofizioz zehaztu behar dituela esan izan da. Beste urrats bat emanda, oraintsuko doktrinaren arabera, 12.6 artikulutik onartutako interpretazioa bata zein bestea izan, gatazka-arau batzuek aplikatzeko moduko atzerriko zuzenbidearen edukia eta irismena ofizioz zehaztu behar da (adibidez, eduki materialaren arabera aplikatzeko zuzenbidea zehazten duten gatazka-arauak edo nazioarteko hitzarmenetara bildutako gatazka-arauak).*

*2000ko urtarrilaren 7ko Prozedura Zibilaren Legeak Kode Zibilaren 12.6 artikuluaren bigarren paragrafoa indargabetu zuen, eta 281.2 artikuluan arau berria sartu zuen: «Frogaren objektu izango dira, halaber, ohitura eta atzerriko zuzenbidea. Ez da ohitura frogatu behar, alderdiak ados badaude ohitura horren izate eta edukiarekin, eta ohituraren arauek ordena publikoa ukitzen ez badute. Atzerriko zuzenbidea frogatu behar da beraren eduki eta indarraldiari dagokionez: atzerriko zuzenbide hori aplikatzeko, auzitegiak behar besteko ikerketa-bideak erabil ditzake». Arau horrek epailearen eta alderdien arteko lankidetza-sisteman oreka handiagoa eta argiagoa ezartzen du atzerriko zuzenbidearen edukia ezagutzeko, atzerriko legea zuzenbide moduan hartzea oinarri hartuta.*

*Atzerriko zuzenbidea frogatzeko bi bide baino ez daude: agiri-froga eta adituaren froga. Lehenengoa –atzerriko arauen edukia eta indarraldia egiaztatzeko aukera ematen du– atzerriko legearen ziurtagiriak gehitzea izan daiteke, agente diplomatikoek edo kontsuletxeetako funtzionarioek emanda, forokoak zein foroan egiaztatutako atzerritarrenak, edo Justizia Ministerioko ziurtagiriak izan daitezke. Epaileari atzerriko legearen irismena ezagutzeko aukera ematen dion adituaren frogari dagokionez, legelarien irizpenari buruz ari gara.*

*Puntu honetan, azpimarratzekoak dira atzerriko zuzenbidearen informazioari buruzko nazioarteko hitzarmenak eta, zehatz esanda, Atzerriko Zuzenbidearen Informazioari buruzko Europako Hitzarmena, Londresen 1968ko ekainaren 7an egin zena (1974ko urriaren 7ko EAO) eta horren protokolo gehigarria, Estrasburgon 1978ko martxoaren 15ean egin zena (1982ko ekainaren 24ko EAO), baita Atzerriko Zuzenbideari buruzko Frogaren eta Informazioaren Hitzarmen Interamerikarra ere, Montevideon 1979ko maiatzaren 8an egin zena (1988ko urtarrilaren 13ko EAO). Horiek lankidetza-mekanismoa ezarri dute organo nazionalen bitartez, diplomatikoen edo kontsulen esku-hartzea saihestuz.*

intervenir, pero sólo cuando haya habido previa intervención de parte, pues su participación se concibe como facultativa y complementaria. Esta interpretación literal del viejo párrafo segundo del artículo 12.6 choca con la regla del que antes era párrafo primero y que ahora es simplemente el art. 12.6 mencionado: si la norma de conflicto se aplica de oficio, el Juez o tribunal debe contar con los medios para llegar al conocimiento del Derecho extranjero aplicable. Por eso, una parte de la doctrina ha considerado más adecuada una interpretación sistemática de este párrafo, que vaya más allá de la letra de la norma, contemplándola a la luz del párrafo primero. Se ha afirmado, en consecuencia, que el Juez o tribunal debe proceder de oficio a la determinación del contenido y alcance del Derecho extranjero aplicable. Dando un paso más, la doctrina más reciente considera que, sea cual sea la interpretación que se acepte del artículo 12.6, algunas normas de conflicto imponen la determinación de oficio del contenido y alcance del Derecho extranjero aplicable (por ejemplo, las normas de conflicto que determinan el Derecho aplicable en función del contenido material o las normas de conflicto contenidas en los convenios internacionales).

La Ley de Enjuiciamiento Civil, de 7 de enero de 2000, deroga el párrafo segundo del artículo 12.6 del Código Civil e introduce una regla nueva en su artículo 281.2: «También serán objeto de prueba la costumbre y el derecho extranjero. La prueba de la costumbre no será necesaria si las partes estuviesen conformes en su existencia y contenido y sus normas no afectasen al orden público. El derecho extranjero deberá ser probado en lo que respecta a su contenido y vigencia, pudiendo valerse el Tribunal de cuantos medios de averiguación estime necesarios para su aplicación». Esta norma establece un mayor y más claro equilibrio en el sistema de colaboración entre el juez y las partes para llegar al conocimiento del contenido del derecho extranjero, partiendo de la consideración de la ley extranjera como Derecho.

Sólo son dos los medios idóneos para probar el Derecho extranjero: la prueba documental y la prueba pericial. La primera –que permite acreditar el contenido y vigencia de las normas extranjeras– puede consistir en la aportación de certificaciones de la ley extranjera expedida por agentes diplomáticos o funcionarios consulares, tanto del foro como extranjeros acreditados en el foro, o certificaciones del Ministerio de Justicia. En cuanto a la prueba pericial, que permite al Juez conocer el alcance de la ley extranjera, consiste en el dictamen de jurisconsultos.

Deben destacarse en este punto los convenios internacionales acerca de la información del Derecho extranjero y, concretamente, el Convenio Europeo acerca de la Información sobre el Derecho Extranjero, hecho en Londres el 7 de junio de 1968 (B.O.E. de 7 de octubre de 1974), junto a su Protocolo adicional, hecho en Estrasburgo el 15 de marzo de 1978 (B.O.E. de 24 de junio de 1982), y la Convención Interamericana sobre Prueba e Información acerca del Derecho Extranjero, hecha en Montevideo el 8 de mayo de 1979 (B.O.E. de 13 de enero de 1988), que establecen un mecanismo de cooperación a través de unos órganos nacionales de enlace, evitando la intervención de diplomáticos o cónsules.

El artículo 281.2 nada ha establecido para el caso de que resulte imposible conocer el contenido del Derecho extranjero aplicable. Aunque la respuesta generalmente sea la aplicación subsidiaria de la ley española, en algunos supuestos puede resultar más adecuado aplicar un Derecho extranjero –por ejemplo, en el caso de que la norma de conflicto del foro contenga conexiones sustitutivas, el Derecho extranjero designado por la segunda conexión será preferible a la ley española–.

## 2) INTERPRETACIÓN Y APLICACIÓN DEL DERECHO EXTRANJERO.

Conocido suficientemente el contenido y alcance del Derecho extranjero, el Juez debe interpretarlo y aplicarlo. El criterio básico a seguir será el de interpretar y aplicar el Derecho extranjero tal y como lo haría el Juez extranjero si ante él se hubiera presentado la demanda, es decir, el Derecho extranjero debe ser aplicado tal y como es, sin desnaturalizarlo ni deformarlo. Sólo así se está cumpliendo con el mandato de la norma de conflicto del foro. Parece indiscutible que éste es el criterio adecuado, pero en la práctica no resulta fácil seguirlo porque el Juez del foro, cuando aplica el Derecho extranjero, sigue siendo naturalmente Juez del foro, con su formación particular, y además está sujeto a su propio Derecho Procesal.

El criterio básico que rige la interpretación y aplicación del Derecho extranjero obliga al Juez del foro a respetar las reglas vigentes en el Estado extranjero en materia de fuentes del Derecho y de entrada en vigor y derogación de las normas jurídicas y Derecho transitorio. El Juez del foro debe respetar también los criterios establecidos en el Estado extranjero en materia de constitucionalidad de las normas del ordenamiento jurídico. Finalmente, el Juez debe seguir las reglas del ordenamiento extranjero relativas a la interpretación de las normas jurídicas.

## 3) EL RECURSO DE CASACIÓN POR INFRACCIÓN DEL DERECHO EXTRANJERO.

El Juez o tribunal de instancia puede infringir el Derecho extranjero aplicable. Se discute si en este caso cabe recurrir en casación. Aunque tradicionalmente se ha negado esta posibilidad, tanto por razones vinculadas con la naturaleza misma del recurso de casación como por razones prácticas, frente a este criterio se van abriendo paso nuevas soluciones. Garantizar la seguridad jurídica o evitar la desnaturalización de la ley extranjera aplicable son algunos de los argumentos empleados para permitir en casación el control de la aplicación del Derecho extranjero.

En el Derecho español, el artículo 477 de la Ley de Enjuiciamiento Civil ni admite ni rechaza el recurso de casación por infracción de leyes extranjeras. En la jurisprudencia tradicionalmente se ha negado la admisión del recurso, ya que la aplicación de leyes extranjeras –se ha dicho– en nada afecta a la uniformidad en la aplicación del Derecho español, pero no faltan aquí tampoco contradicciones. No obstante, en la jurisprudencia más reciente, aunque sin pronunciamientos de carácter general, se admite el recurso de casación.

*281.2 artikuluak ez du ezer ezarri aplikatzeko moduko atzerriko zuzenbidearen edukia ezagutzea ezinezkoa den kasurako. Oro har erantzuna Espainiako legea modu subsidiarioan aplikatzea den arren, kasu batzuetan egokiagoa izan daiteke atzerriko zuzenbidea aplikatzea –adibidez, foroko gatazka-arauak lotura ordeztaileak dituenean, bigarren loturak izendatutako atzerriko zuzenbideak lehentasuna izango du Espainiako legearen aurrean–.*

## *2) ATZERRIKO ZUZENBIDEAREN INTERPRETAZIOA ETA APLIKAZIOA.*

*Atzerriko zuzenbidearen edukia eta irismena behar den beste ezagutu ondoren, epaileak interpretatu eta aplikatu egin behar du. Oinarrizko irizpidea atzerriko zuzenbidea interpretatzea eta aplikatzea izango da, atzerriko epaileak egingo lukeen bezala demanda bere aurrean aurkeztu izan balitz, hau da, atzerriko zuzenbidea horrela aplikatu behar da, desnaturalizatu eta deformatu gabe. Modu horretan, soilik betetzen da foroko gatazka-arauaren manua. Eztabaidaezina da horixe dela irizpide egokia, baina praktikan ez da erraza horri jarraitzea, foroko epaileak, atzerriko zuzenbidea aplikatzen duenean, foroko epailea izaten jarraitzen duelako, prestakuntza bereziarekin, eta gainera, bere zuzenbide prozesalari lotuta dagoelako.*

*Atzerriko zuzenbidearen interpretazioa eta aplikazioa arautzen duen oinarrizko irizpideak foroko epailea behartzen du atzerriko estatuan indarrean dauden arauak errespetatzera zuzenbideko iturrien arloan eta arau juridikoak eta zuzenbide iragankorra indarrean jartzearen eta indargabetzearen arloan. Foroko epaileak atzerrian ezarritako irizpideak errespetatu behar ditu antolamendu juridikoko arauen konstituziotasunaren arloan. Amaitzeko, epaileak atzerriko antolamenduaren arauak errespetatu behar ditu arau juridikoen interpretazioari dagokionez.*



## *3) KASAZIO-ERREKURTSOA ATZERRIKO ZUZENBIDEA URRATZEAGATIK.*

*Auzialdiko epaileak edo auzitegiak aplikatzeko moduko atzerriko zuzenbidea urratu dezake. Kasu horretan eztabaidatzen da kasazio-errekurtsoa egitea posible den. Tradizioz aukera hori ukatu den arren, kasazio-errekurtsoaren izaerari lotutako arrazoiengatik zein arrazoi praktikoengatik, irizpide horren aurrean konponbide berriak agertzen ari dira. Segurtasun juridikoa bermatzea edo aplikatzeko moduko atzerriko legea desnaturalizatzea dira atzerriko zuzenbidearen aplikazioaren kontrola kasazioan onartzeko erabilitako argudio batzuk.*

*Espainiako zuzenbidean, Prozedura Zibilaren Legearen 477. artikuluan ez da ez onartzen ez baztertzen kasazio-errekurtsoa atzerriko legeak urratzeagatik. Jurisprudentzian, tradizioz kasazioa onartzea ukatu da, atzerriko legeen aplikazioak –esan dutenez– ez baitu inolako eraginik uniformetasunean Espainiako zuzenbidearen aplikazioari dagokionez, baina hemen ere kontraesanak daude. Hala ere, oraintsuko jurisprudentzian, izaera orokorreko pronuntziamendurik egon ez arren, kasazio errekurtsoa onartzen da.*

# *KALERATZEAREN ONDORIOZKO KALTE-ORDAINAK PFEZ-N*

# LAS INDEMNIZACIONES POR DESPIDO EN EL I.R.P.F.

**Gonzalo Apoita**
Abogado-Economista / *Abokatu-Ekonomista*

***Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren lehenengo testu bateratua onetsi zenetik, 1978tik, langileak kaleratzearen edo lanpostutik kanporatzearen ondoriozko kalte-ordainek salbuespena izan dute aipatu zergan, laneko araudian nahitaezko izaerarekin ezarritako zenbatekoari dagokionez.***

*Aurrekoaren ildotik, tradizioz, lanpostutik kanporatzearen edo kaleratzearen ondoriozko kalte-ordainen salbuetsitako zenbatekoa, eta beraz, atxikipenetik salbuetsita zegoena 45 eguneko soldata zen lan egindako urte bakoitzeko, gehiengo muga 42 hileko izanda, bidegabeko kaleratzeen kasuan, eta 20 eguneko soldata urtean, gehiengo muga 12 hileko izanda, "arrazoi objektiboengatik" egindako kaleratzeen kasuetan, hau da, Langileen Estatutuaren 51. eta 52. artikuluetan bilduta daudenetan.*

*2000ko maiatzean, Bizkaiko Batzar Nagusiek 4/2000 Foru Legea onetsi zuten. Lege horretako idazketa bat mantendu egin da indarreko PFEZri buruzko 6/2006 Foru Arauaren 9. artikuluko idatz-zatian. Horren arabera, Enplegu Erregulazioko Espediente (aurrerantzean ERE) baten ondorioz egindako kaleratze edo lanpostutik kanporatzeen kasuan, edo arrazoi objektiboengatik egiten zirenen kasuan, hau da, arrazoi ekonomikoengatik, teknikoengatik edo ezinbestean, jasotako kalte-ordainak salbuetsita egongo ziren, bidegabeko kaleratzerako ezarritako mugak gainditu ezean, hau da, 45 eguneko soldata lan egindako urte bakoitzeko, muga 42 hileko izanda.*

*Euskal Autonomia Erkidegoko beste bi lurralde historikoetan PFEZren araudian laneko kalte-ordainek izandako tratamenduari dagokionez, Gipuzkoan 10/2006 Foru Arauan Bizkaiko 6/2006 Foru Arauko hiru kasuak mantentzen ziren arren, Arabako 372007 Foru Arauak antolaketa-arrazoiak ere gehitu zituen, baina ez ekoizpen-arrazoiak.*

*Lurralde erkidean aplikatzeko moduko araudiari dagokionez, 2009ko abenduaren 31n, Estatuko Aldizkari Ofi-*

**Desde la aprobación del primer texto unificado del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, allá por el año 1978, las indemnizaciones por despido o cese de los trabajadores han disfrutado de exención en el referido impuesto, en la cuantía establecida con carácter obligatorio en la normativa laboral.**

De acuerdo con lo anterior, tradicionalmente el importe exento, y por ello exceptuado de retención, de las indemnizaciones por cese ó despido se situaba en los 45 días de salario por año trabajado, con el límite máximo de las 42 mensualidades, para los despidos declarados como improcedentes y en los 20 días de salario por año, con un máximo de 12 mensualidades, para los despidos denominados "por causas objetivas", recogidos en los artículos 51 y 52 del Estatuto de los Trabajadores.

En el mes de mayo del año 2000 las Juntas Generales de Bizkaia aprobaron la Norma Foral 4/2000, en la que se incluía una redacción que posteriormente ha mantenido en el apartado 4 del artículo 9 de la vigente Norma Foral 6/2006, del I.R.P.F. en la que ya se establecía que en los casos de despidos o ceses consecuencia de un Expediente de Regulación de Empleo (en adelante E.R.E.), ó producidos por causas objetivas, que fuesen debidos a causas económicas, técnicas o de fuerza mayor, se declaraban exentas las indemnizaciones percibidas que no superasen los límites establecidos para el despido improcedente, es decir el de 45 días de salario por año trabajado, con el límite de las 42 mensualidades.

En relación con el tratamiento de las indemnizaciones laborales en la normativa del I.R.P.F. de los otros dos Territorios Históricos del País Vasco, si bien en Guipúzcoa la Norma Foral 10/2006 mantenía en su redacción los mismos tres supuestos que los de Norma Foral 6/2006 de Bizkaia, la Norma Foral 3/2007 de Alava incluía también los de las causas organizativas, pero no las de producción.

Por lo que respecta a la normativa aplicable en Territorio Común, el 31 de diciembre de 2009 el Boletín Oficial del Estado publicaba la Ley 27/2009, de 30 de diciembre, de medidas urgentes para el mantenimiento y el

fomento del empleo y la protección de las personas desempleadas, en la que, sin mención expresa alguna en su preámbulo, figuraba escondida una disposición adicional decimotercera en la que se daba nueva redacción a la letra e) del artículo 7 de la Ley del I.R.P.F. declarando exentas las indemnizaciones percibidas por despidos o ceses consecuencia de un E.R.E., ó producidos por causas objetivas, hasta los límites anteriormente previstos para los despidos improcedentes, pero en la que junto a las causas económicas, técnicas y de fuerza mayor, previstas en la normativa forales, se incorporaban también las causas organizativas y las de producción. Es de destacar que esta medida, de clara protección frente al desempleo, se aprobó con efectos retroactivos y fue aplicable a partir del 8 de marzo de 2009.

Aunque con cierto retraso, la Juntas Generales de Bizkaia aprobaban el pasado 22 de diciembre la Norma Foral 7/2010 destinada exclusivamente a la reforma del apartado 4 del artículo 9 de la Norma Foral 6/2006, para, según reza su preámbulo, adaptarlo a la normativa aplicable en el Territorio Común y solucionar los problemas que la omisión de las causas organizativas y de producción estaban causando ó podían causar. Sin embargo, lo más curioso de la Norma Foral 7/2010 es que, imaginamos que fruto de otra omisión involuntaria, no incluye la tradicional disposición final de "entrada en vigor", circunstancia que ha obligado a desempolvar los manuales en busca de la normativa reguladora de la aplicación de las normas tributarias con la intención de descubrir su verdadera eficacia temporal.

El artículo 9 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio de Bizkaia es el que define el ámbito temporal de las normas tributarias y en él se dispone que éstas *"entrarán en vigor a los 20 días naturales de su completa publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia"*, siempre que en ellas no se disponga otra cosa, y que, salvo disposición en contrario, *"no tendrán efectos retroactivos y se aplicarán a los tributos sin período impositivo devengados a partir de su entrada en vigor y a los demás tributos cuyo período impositivo se inicie desde ese momento"*.

La interpretación de lo dispuesto en el parcialmente transcrito artículo 9 no ofrece demasiadas dudas: el I.R.P.F. es un impuesto con un período impositivo que se inicia para todos los obligados tributarios el día 1 de enero de cada año natural, por lo que la nueva redacción al artículo 9.4 de la Norma Foral 6/2006 del I.R.P.F. afectará, si nadie lo remedia, sólo a los ceses ó despidos que sean consecuencia de un E.R.E., ó a los producidos por causas objetivas, que tengan lugar en el año 2012 y en los años sucesivos. Desconozco a ciencia cierta si esa era realmente la fecha prevista para su entrada en vigor, pero si no lo era no quedará otro remedio que reconocer el error y articular los mecanismos necesarios para solucionarlo, especialmente en los tiempos que corren y por tratarse de una medida que no tiene otra finalidad que la de mejorar la fiscalidad de los trabajadores ante determinadas indemnizaciones percibidas por la extinción de sus contratos.

**Bilbao, Febrero 2011**

*zialean 27/2009 Legea, abenduaren 30ekoa, argitaratu zen, enplegua mantendu eta sustatzeko eta langabeak babesteko presako neurriei buruzkoa. Horretan, hitzaurrean esanbidezko aipamenik egiten ez zitzaion arren, hamahirugarren xedapen gehigarria ezkutatuta zegoen, eta horretan idazketa berria ematen zitzaion PFEZren Legearen 7. artikuluko e) letrari; ERE baten ondoriozko edo arrazoi objektiboen ondoriozko kaleratzeen edo lanpostutik kanporatzeen kalte-ordainak salbuetsita zeudela adierazi zen, bidegabeko kaleratzeetarako ezarritako mugaraino. Gainera, foru-araudietan ezarritako arrazoi ekonomiko, tekniko eta ezinbesteko kasuekin batera, antolaketa-arrazoiak eta ekoizpen-arrazoiak ere gehitu ziren. Aipatzekoa da neurri hori, langabeziaren aurrean babes argia zekarrena, atzeraeraginezko izaerarekin onetsi zen eta 2009ko martxoaren 8tik aurrera aplikatu ahal izan zen.*

*Nolabaiteko atzerapenarekin bada ere, Bizkaiko Batzar Nagusiek joan den abenduaren 22an 7/2010 Foru Araua onetsi zuten, modu esklusiboan 6/2006 Foru Arauaren 9. artikuluko 4. idatz-zatia eraldatzera bideratuta zegoena, hitzaurrearen arabera, lurralde erkidean aplikatzeko modukoa den araudira egokitzeko eta antolaketa-arrazoiak eta ekoizpen-arrazoiak alde batera uzteak eragiten zituen edo eragin zitzakeen arazoak konpontzeko. Hala ere, 7/2010 Foru Arauaren gauzarik bitxiena da, nahi gabe aipatu gabe utzi den zerbaiten ondorioz pentsatzen dugu, ez duela "indarrean jartzea" azken xedapen ohikoa gehitzen, eta inguruabar horren eraginez eskuliburuei hautsa kendu behar izan zaiela tributu-arauen aplikazioaren inguruko araudia bilatzeko, denboran benetan duten eraginkortasuna aurkitzeko.*

*Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren 9. artikuluan zergei buruzko arauen denbora-eremua ezarri da. Artikulu horren arabera,* "arauak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean osorik argitaratzen direnetik egutegiko hogei egun pasatutakoan jarriko dira indarrean", *betiere, haietan besterik xedatu ostean, eta aurkakoa esaten ez bada,* "ez dute atzeraeraginik izango eta arauak indarrean jartzen direnetik sortutako zergei (edozein zergalditakoei) eta orduan hasten den zergaldiko gainerako zergei aplikatuko zaizkie".

*9. artikuluan ezarritakoaren interpretazioak ez du zalantzarik: PFEZren zerga-aldia zergapeko guztientzat egutegiko urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean hasten da. Hori dela eta, inork konpontzen ez badu, PFEZren 6/2006 Foru Arauaren 9.4 artikuluaren idazketa berriak ERE baten ondoriozko eta arrazoi objektiboen ondoriozko kaleratzeak edo lanpostutik kanporatzeak soilik ukituko ditu, 2012. urtean eta hurrengoetan gertatzen direnak. Ez dakit indarrean jartzeko aurreikusitako data horixe bazen, baina hala ez bazen, akatsa aitortu beharko da eta hori konpontzeko mekanismoak martxan jarri beharko dira, batez ere gaur egungo egoeran eta neurriaren xede bakarra langileek kontratuak bertan behera geratzeagatik jasotako kalte-ordain batzuen fiskalitatea hobetzea izanda.*

***Bilbo, 2011ko otsaila***

# *ADINEKOEN BABES JURIDIKOARI BURUZKO JARDUNALDIA*

# JORNADA SOBRE PROTECCIÓN JURÍDICA DE LAS PERSONAS MAYORES



Virginia Mayordomo, Nazario Oleaga, Carmen Chirapozu y Jose Luis de la Cuesta

***Joan den hileko 11n, ostirala, gure Bazkuneko Ekitaldien Aretoan, Adinekoen Zuzenbideari buruzko Ikerketa Taldeak antolatutako bigarren jardunaldia egin zen, kolektibo horren babes juridikoaren inguruan.***

*Jardunaldiaren aurkezpena Nazario Oleaga Páramo gure dekanoak egin zuen. Jarraian Virginia Mayordomo Rodrigo UPV-EHUko Zigor Zuzenbideko irakasleak eta IVAC-KREI Biktimologiaren Euskal Institutuko idazkariak hartu zuen hitza. Hizlariak adinekoen kasuan tratu txarrak eta bertan behera uztea jorratu zituen, baina aurretik, nerabeen aldetik aurrekoen kontrako indarkeriaren gorakada kezkagarria aipatu zuen, azken horrek gora egin baitu, hezkuntza prozesuko gutxiegitasunen ondorioz.*

**El pasado viernes, 11 de febrero, tuvo lugar en el Salón de Actos de nuestro Colegio, la segunda jornada organizada por el Grupo de Estudios del Derecho de las Personas Mayores, sobre la protección jurídica de este colectivo.**

Así, la jornada dio comienzo de forma temprana, tras la La jornada, que comenzó con la presentación de nuestro Decano, D. Nazario Oleaga Páramo, continuó con la exposición de Dª. Virginia Mayordomo Rodrigo, Profesora de Derecho Penal de la UPV-EHU y Secretaria del Instituto Vasco de Victimología IVAC-KREI, quien abordó la cuestión de los malos tratos y el abandono de las personas mayores, no sin antes referirse al preocupante aumento de la violencia contra los ascendientes por parte de los adolescentes, que viene detectándose en los últimos años, fruto de las deficiencias en el proceso educativo.

Junto a lo anterior, señaló, la violencia también ha aumentado con respecto a la población mayor, fundamentalmente debido al incremento de la esperanza de vida, si bien, en el seno de este problema se encuentran asimismo otras causas, como la estigmatización de las personas mayores como pasivos improductivos, y los cambios sociales habidos recientemente: la incorporación de la mujer al mundo laboral, el cambio de valores, etc…

Junto a lo anterior, también encontramos un cambio en el perfil del cuidador, que tradicionalmente ha venido siendo la mujer y que últimamente se está viendo sustituido por cuidadores formales, profesionales, que, en términos generales, dificultan que la aparición de situaciones de maltrato.

Dicho esto, la ponente explicó que el maltrato puede concretarse de muchas maneras, pero siempre se relaciona con la idea de mayor vulnerabilidad. Puede ser un maltrato activo (contusiones y caídas de repetición), omisivo (falta de cuidado, aseo, nutrición, medicación descuidada) o emocional (vejaciones, insultos, negligencias…), y suele manifestarse en depresión y llanto injustificado. Adicionalmente encontramos otras conductas que los mayores perciben como maltrato: silencio, expresión de fuerte hostilidad, rotación domicliaria, la explotación afectiva para despojar al anciano de sus bienes, residencias con normas muy estrictas…

Para hacer frente a todas estas situaciones, se han ido creando en España numerosas instituciones en defensa del mayor. Encontramos así el art. 50 de nuestra Constitución y la obligación de alimentos entre familiares, pero probablemente el instrumento legal más moderno, y que con mayor ambición pretende servir al interés de las personas mayores, es la Ley 39/2006, de Dependencia, que a estas alturas se ha convertido en un instrumento fundamental para garantizar el bienestar de este colectivo.

En lo que respecta al abuso y al maltrato, la ley recoge una serie de conductas que constituyen infracciones administrativas (discriminación, conductas de riesgo…) estableciendo para cada una de ellas una sanción, económica, en la mayoría de casos, pero que puede llegar a la suspensión de la actividad, en casos relacionados con cuidadores formales, de especial gravedad.

Junto a lo anterior, desde 2008 existe en España la figura del Fiscal del Mayor, cuyo cometido es la protección y defensa de las personas mayores no incapacitadas judicialmente. En su labor se ha ido apreciando un aumento de las denuncias por incumplimiento de las garantías de la Ley de Dependencia y despuntan como casos especialmente preocupantes los maltratos sutiles y difíciles de detectar y probar.

Para terminar su intervención, la ponente habló de la respuesta penal al maltrato en mayores, sin dejar de advertir que el arsenal prohibiciones y sanciones recogidas en nuestra legislación no van a posibilitar por sí solas la solución del problema, siendo para ello necesario establecer mecanismos de control de los centros

*Aurrekoarekin batera, hizlariaren esanetan, indarkeriak adinekoen kasuan gora egin du, batez ere, bizi-itxaropena handitu delako. Arazoaren oinarrian beste arazo batzuk omen daude, hala nola adinekoak estigmatizatzea pasibo ez-emankor moduan, eta oraintsu izandako gizarte-aldaketak: emakumea lanmunduan sartzea, balioen aldaketa, etab.*

*Aurrekoarekin batera, zaintzailearen profilean ere aldaketa gertatu da. Tradizioz zaintzaileak emakumeak izan dira baina azkenaldian zaintzaile formalak, profesionalak hedatu dira, eta horiek, oro har, tratu txarren egoerak agertzea saihesten dute.*

*Horren ostean, hizlariak esan zuen tratu txarrak modu askotan zehaztu daitezkeela, baina zaurgarritasun handiagoaren ideiarekin lotuta daudela beti. Tratu txar aktiboak izan daitezke (ubeldurak eta behin eta berriro erortzea), ez-egiteagatik (zainketarik ez egotea, higienea, nutrizioa, botikak gaizki hartuta) edo emozionalak (isekak, irainak, zabarkeria…), eta horren adierazpenak depresioa eta justifikaziorik gabeko negarrak izaten dira. Horrekin batera, adinekoentzat tratu txarrak izaten diren beste jarrera batzuk daude: isiltasuna, etsaitasun indartsua, etxez etxe ibiltzea, esplotazio afektiboa adinekoari ondasunak kentzeko, arau oso zorrotzak dituzten egoitzak…*

*Egoera horiei aurre egiteko, Espainian adinekoak babesteko erakunde ugari sortu dira. Gure Konstituzioaren 50. artikulua eta familiakoen artean jakiak emateko betebeharra daude, baina ziurrenik, lege-tresnarik modernoena eta adinekoen interesei erantzun nahi diena, 39/2006 Legea, Mendekotasunari buruzkoa, da. Gaur egun kolektibo horren ongizatea bermatzeko ezinbesteko tresna da.*

*Abusuari eta tratu txarrei dagokienez, legean arauhauste administratiboak diren zenbait jarrera jaso dira (bereizkeria, jarrera arriskutsuak…). Horietako bakoitzerako zehapen ekonomikoa ezarri da kasu gehienetan, baina jarduera etetea ekar dezake zaintzaile formalekin lotutako kasu larrietan.*

*Aurrekoarekin batera, 2008tik, Espainian Adinekoaren fiskala dago. Horren eginkizuna modu judizialean ezgaituta ez dauden adinekoak babestu eta defendatzea da. Mendekotasun Legeko bermeak ez betetzeagatik salaketek gora egin dute eta tratu txar zorrotzak, antzemateko eta frogatzeko zailak direnak, kezkatzekoak dira.*

*Amaitzeko, hizlariak adinekoen tratu txarrei emandako zigor-erantzunari buruz hitz egin zuen. Hizlariaren esanetan, gure legeriak bildutako debekuek eta zehapenek ez dute arazoaren konponbidea ekarriko. Ezinbestekoa da egoitza-zentroak kontrolatzeko mekanismoak ezartzea eta zaintzaile informalei jarraipena egitea, eta azken horiek arintzeko formulak askatzea, gogaitze egoerak saiheste aldera.*

*Horren ostean, Jose Luis de la Cuesta Arzamendi UPV-EHUko Zigor Zuzenbideko katedradunak eta IVAC-KREIko*

*zuzendariak hartu zuen hitza. Hizlariak adinekoen beste biktimizazio batzuk aztertu zituen, hala nola iruzurrak eta mota ekonomikoko abusuak, higiezinaren inguruko jazarpena eta espetxeetan dauden adinekoen egoera.*

*Aurretik, katedradunak zenbait gai jorratu zituen, besteak beste, zigor arloan zahartzaroa arautzen duen araudi zehatzik ez egotea.*

*Hizlariaren esanetan, gure antolamenduan ez dago legezko irizpiderik kolektibo hori osatzen duten pertsonak zehazteko, eta horrek super babes automatikoaren egoera ekar dezake, eta hori ez da desiragarria. Oinarri hori izanda, beste erreminta batzuk daude, hala nola izaera orokorreko xedapenak eta zigor-arauan ezarritako astungarri orokorrak, eta horiek kasu hauetan aplikatzeko modukoak dira eta adinekoari babes egokia ematen diote.*



**Manuel Mª Díaz de Rábago y Santiago García**

*Abusu ekonomiko ohikoenak adinekoaren inguruko pertsonek egiten dituzte: adinekoaren pentsioa hartzen duten familiakoak, bitxiak eta objektu baliotsuak kentzea, merkatuko prezioaren azpitik dauden negozio juridikoak egitea. Horietan guztietan, adinekoak ez ulertzea aprobetxatzen da.*

*Horrela, mota horretako jarreretan ZKren 250.1.6 art. aplikatzen da, harreman pertsonalen abusuaren eta enpresa- edo lanbide-sinesgarritasuna aprobetxatzearen modalitatean. Hala ere, ZKren 268. art.ko errugabetze aitzakia askotan aplikatzen da eta, beraz, jazarri behar diren egitateak jazartzea zaila izaten da askotan.*

*Iruzurrari dagokionez, engainua egon behar da, baina batzuetan hain da hutsala, jurisprudentziak ez du hauteman nahi izaten. Gainera, nahiko engainua izan behar da, eta beraz, giltzarria da galdetzea adinekoen*

residenciales y seguimiento de los cuidadores informales, así como formulas para aliviar a estos últimos, evitando así llegar a la saturación

Tras esta primera ponencia tomó la palabra D. Jose Luis de la Cuesta Arzamendi, Catedrático de Derecho Penal de la UPV-EHU y Director del IVAC-KREI, quien dedicó su intervención a otras victimizaciones de las personas mayores, concretadas en estafas y abusos de tipo económico, el acoso inmobiliario y la situación de los mayores internos en instituciones penitenciarias.

Con carácter previo, el Catedrático trató una serie de cuestiones, entre las que destacó la inexistencia de una normativa específica en el plano penal reguladora de la ancianidad.

